

Zein duzu
BERRIaren urteko azalik
gogokoena?



Sagardoa kopan? Aukeran, ohiko edalontzian!

BERRIAk galdeketa egin du azken egunotan: «Zuk zer nahiago: Sagardoa kopan, ala basoan?». Hamarretik bederatzik nahiago dute edalontzia kopa baino.



Kopa bat eta edalontzi bat, txotx garaiaren aurkezpenean. GORKA RUBIO / FOKU



Edu Lartzanguren

2025EKO URTARRILAREN 13A - 16:00

Entzun 00:02:38



iru bat ere nahiagarria egin zitzaion askori. Sagardoa txakolinarekin koparekin jasotzen ari ziren aurkezpenean, edalontzi zapal eta apal ohikoa erabili ordez.

Sagardoa dotoretzeko saio bat? Bertsolari eta bestelako alprojengandik harago, sagardoa aberats mokofinen moduetara eramane nahian ari dira? Sotoetako kultura underground eta ilun horretatik atera eta, txakolinarekin egin bezala, munduko egunkarietako igandeko gehigarri gastronomikoetan agerrarazi nahi dute?

BERRIAk jakin nahi izan du euskaldunek zer irizten dioten horri, eta galdeketa bat abiatu zuen joan zen ostiralean, sare sozialen bitartez.

«Zuk zer nahiago: Sagardoa kopan, ala basoan?», galderari erantzun diotenen artean, gehiengo handi batek adierazi du nahiago duela tradizioari atxiki. 1.387 erantzun jaso ditu BERRIAk bere sareetan, eta horietatik %89 dira sagardoa basoan edatearen aldekoak: 1.235, hain zuzen. Koparen alde egin dute 152 irakurlek (%9).

Telegram sarean, %91k aukeratu dute sagardoa edalontzian edatea, eta %9k bakarrik egin du koparen alde. Denera 632 jarraitzailek erantzun diote galdeketari.

Twitterren erantzun dutenen %87,9rentzat ere edalontzia da gogoko aukera. Halere, %12,1ek aukeratu dute kopa.

Whatsappeko kanalean, berriz, 155 jarraitzailek egin dute edalontziaren alde, eta 12k koparen alde.

Instagramen 497k egin dute basoaren alde, eta 25ek koparen alde.

Zaldieroak horixe izan zuen hizpide BERRIAN igandeko *De Rerum Natura* zintan:



Zaldieroa

GAIAK

Bizimoduak

Gastronomia

Bi hamarraldi. Milaka aldi.

Hogei urtez, milaka euskaldunen babesari esker, aldian aldiko kazetaritza independente eta profesionala egin ahal izan dugu. Orain, aldi berria dator. Zure aldia. 2025erako 3.000 babesle berri behar ditugu iragana eta geroa orainaldian kontatzeko.

[Egin zure ekarpena](#)

IRUZKINAK


Ez dago iruzkinik

[Irukin bat egin](#)

ORDENATU

DATA

abiste buletinak



- Astekaria
- Badok
- Goizeko buletina
- Arratsaldeko buletina
- Kinka
- Mendia
- BERRIA Ikasgela

HARPIDETU

INTERESGARRIA IZANGO ZAIZU



Epaileek ebatzi dute Gipuzkoan klub batean aritu nahi duten umeez ez dutela ezinbestean eskola kirola egin behar

IRATI URDALLETA LETE

Garraioen deskontuak: Renferena, bertan behera; besteak, airean

IMANOL MAGRO EIZMENDI



'Emilia Pérez' nagusi Oscar sarietako izendapenetan

AMAIA JIMENEZ LARREA



Kozinatu eta dastatu
Iker Markinez sukaldariak
egunkarian argitaratu dituen
errezetak zeure etxean





NABARMENDUAK

Benito Lertxundi:
«Nire ibilbidearen azken zatian doktrinak baztertzea jo dut»

GORKA EROSTARBE LEUNDA



«Jendeak geroko utzi ditu malkoak»

ORSOLA CASAGRANDE



Juan Carlos Perez eta Jose Garate 'Foisis':
«Anakronikoak ginen»

IÑIGO ASTIZ

Ab
asl
ab
esl
LEIRE

Harpidetu Berriaren buletinetara

Mendia

Arratsaldekoa

Goizekoa

Badok

Astekaria

Kinka

Kazetaritza

Izena ematean pribatutasun politika onartzen duzu.

Harpidetu